

## Euskalingua 26

### Aurkezpena

Irakurle on hori,

Euskalingua 26k hiru artikulua ditu, bata fonetika eta fonologia arlokoa, bestea ahozko literaturakoa, herri ipuinak, hain zuzen eta azkena Aholab taldearena. Lehenengoan L. Gandarias, I. Gaminde, L. Unamuno eta A. Iglesias irizpide akustikoen baliagarritasuna euskaraz aztertzen dute. Bigarrenean M. Unamunok *Antzorrilleta* herri ipuinari buruz idatzi du. Hirugarrenean Aholab taldeak TTS sistema bat aurkeztu du.

Leire Gandarias, Iñaki Gaminde, Lorea Unamuno eta Aitor Iglesias EUDIA ikerketa- taldeko kideek *Euskara estandarraren korrelatu akustikoez* izeneko artikulua aurkeztu dute. Euskara estandarreko ekoizpenean oinarrituta eta iraupena, oinarritzko maiztasuna eta energia korrelatuak aintzat hartuta, honek bokalen daban eragina, bokal azentudunak eta bokal azentugabeak bereizteko balio daban, korrelatu bakoitzaren eragina, etab. aztertzen ditue eta ondorioztatu dute korrelatu akustikoak bokal azentudunak eta azentugabeak bereizteko eta azentuaren kokagunea identifikatzeko ere irizpide egokia direla.

Maribi Unamunok *Antzorrilleta* herri ipuina aurkeztu du. Herri ipuin hau orain dala 50 urte Teri Ibarrolaren ahotsean grabatu zuen lehenengoz Columbia disketxean, beste sei herri ipuineguz batera. Autoreak *Antzorrilleta* ipuinak Euskal Herriko beste aldaera batekin eta Europako beste herrialde batzuetako herri ipuin batzuekin izan lekezan loturak hartzen ditu kontuan. Ipuin idatziaren testuaz gain, hasierako grabazioaren audioa du entzungai, Ibarrola anderearen ahotsa, hain zuzen.

Eva Navas, Daniel Erro, Jasone Salaberria, Beñat Oyharçabal eta Manuel Padillak nafar-lapurtera euskalkirako TTS bat sortu dute. Horretarako 4.000 esaldiko corpusa sortu dute, nafar-lapurterako hizlari bi grabatuta. Orain arteko TTS estandarraren transkripzio fonetikoari euskalkiaren transkripzio fonetikoaren arauak gehituta eta soinu egokitzapenak eginda, erabiltzaileek hobesten daban emaitza lortu dute hizketa sintetikoaren alorrean.

Aulestin, 2015eko maiatzaren 15ean

Lorea Unamuno

Maribi Unamuno

Koeditoreak

lorea.unamuno@ehu.eus

victoria.unamuno@ehu.eus